

57. FITXA. Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planen ezohiko deialdia (2023)

Nori zuzenduta: Toki erakundeak (udalerrriak, probintziak, eskualdeak, metropoli-areak, udalerrietako mankomunitateak)

Sartzeko esteka: [Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa \(MINCOTUR\)](#)

Eremuak: Turismoa

Zenbatekoa: 17.000.000 € Euskadiko Helmugetako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Plan osorako

Aurkezteko amaiera-data: 2023/03/06 (14:00etan)

Laburpena

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bosgarren politika, "Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa berreskuratzea eta Nazio Ekintzailea den Espainia bultzatzea" izenekoa, **14. Osagaia: Turismoaren sektorerako Modernizazio eta Lehiakortasun Planaren bidez gauzatzen da**, turismoaren sektoreari dagokionez. "**Eredu turistikoa jasangarritasunerantz eraldatzea**" lehen ardatzean kokatzen da **Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Estrategia**. Estrategia horrek **jasangarritasuna eredu turistikoaren eraldaketaren giltzarri gisa** kokatu nahi du, eta, horretarako, administrazio publikoen arteko lankidetzaren sareak sortzen ditu, helburu komunak lortzeko eta zeharkako arazoak konpontzeko, bide batez, sektore turistikoan eraldaketa berdea eta digitala bultzatzeko, eta lehiakortasuna hobetzeko.

2023/01/27an egindako Turismoko Ezohiko Konferentzia Sektorialak **Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planen ezohiko edizio berri** bat abiaraztea onetsi du, zeina Europako Next Generation EU berreskurapen funtsetatik datozen 478 milioi euroekin finantzatuko baita.

2023an, Ezohiko Programaren aurrekontuaren % 7a **Turismo Urdinean** eta **Eguzkia eta hondartza duten helmugetan** diharduten Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana eta Helmugan arteko Kohesiorako Jarduketa finantzatzeko bideratuko da. Horretarako, estrategiaren 6. eranskinean, 4 ardatzetako bakoitzerako jarduera hautagarrien proposamen bat sartu da, eta hautagarriak ez diren jardueren zerrenda bat ere gehitu da.

Helmuga turistikoak

Oro har, **helmuga turistiko bat espazio fisiko bat da, non bisitari batek gaua eman dezakeen**. Turismoaren balio-katean, kokapen berean dauden produktuen eta zerbitzuen eta jarduerena eta esperientzien multzo bat da, baita sektorea aztertzeko oinarritzko unitate bat ere. Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Estrategiak ezaugarri bereizgarriak dituzten **helmugen hiru kategoria** hauek identifikatzen ditu:

→ Helmuga turistikoa: eguzkia eta hondartza

- **Nazioartetik datozenen eguzkia eta hondartza helmuga.** Urtean 4 milioi ostatu-gau baino gehiagoko hotelen okupazio-tasa dutenak dira, edo urtean dituzten ostatu-gau guztien % 70 baino gehiago ez-egoiliarrenak edo atzerritarrenak direnak.
- **Eguzkia eta hondartza helmuga mistoa/bizitegi izaerakoa.** Ez daude hain bideratuta nazioarteko eskarira, eta ez daude hain konektatuta horien dinamikekin. Bigarren egoitzak nagusi dira ostatu-eskaintzan, eta horrek errentagarritasuna murriztu eta urtarokotasuna areagotzen du.

→ Helmuga turistikoa: landa-eremua

- **Naturagunea.** Dinamizazio beharra duten goi-mendiko naturguneak eta helmugak, eta esku-hartzeak, bere baliabideetatik abiatuta, produktu turistikoak sortzen lagun dezatenak, eta, betiere beren balio ekologikoekin eta ingurumen-balioekin bateragarritasunez eta errespetuz egingo dira.
- **Izaera turistikoko landa-eremuko lurraldea.** Biztanlez hustutzen ari diren landa-eremuak, oinarri ekonomiko nagusizat lehen sektorea dutenak, nolabaiteko ondare-metaketa dutenak eta gertuko turismo dibertsifikatua eskaintzeko potentziala dutenak. Helmuga horiek udalerrri bat baino gehiago barne har dezakete, baita antzeko ezaugarriak dituzten lurraldeak ere.
- **Landa-eremuko kostaldeko helmuga.** Sakabanatutako habitata duten kostaldeko lurraldeak edo udalerrriak, beren oporretarako helmugatan mistotzat hartzeko behar adinako masa kritikoa ez dutenak.

→ Helmuga turistikoa: hiria

- **Hiriko helmuga handia (Madril eta Bartzelona).** Berrikuntzarako eta turismo eredu berriekin esperimentatzeko gaitasun handia duten helmugak.
- **Hiriko helmuga.** 150.000 biztanletik gora eta profil turistiko sendoa dituzten hiriak.
- **Identitate turistikoa duen hiria.** 20.000-150.000 biztanle bitarteko hiriko helmugak, ahalmen turistikoko baliabideen kontzentrazio handia dutenak, UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatutakoak barne.

[Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Estrategia](#)ren 05. Puntuan, azpikategoria horietako bakoitzaren helburuak eta beharrak zehazten dira, espero diren neurrien ikuspegi zehatzagoa emanez.

Jarduera bideak

Deialdiaren alderdi operatiboki **Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planetan** zehazten da, EAOen, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen artean koordinatutako eta negoziatutako prozesu baten bidez. Lurralde-plan horiek egiteko, Aholkularitza Batzorde bat sortuko da autonomia erkidegoetako lurralde bakoitzerako. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Autonomia Erkidegoko bi ordezkari, eta horietako bat batzordeburua izango da.
- Turismo Estatu Idazkaritzako bi ordezkari.
- Autonomia Erkidego bakoitzeko Udallerrien Federazioko ordezkari batek; uharteen kasuan, uharteetako consell edo kabildoetako ordezkari batek ordezkatu ahal izango du.

Lurralde Planek bi bide hauetatik antolatzen dute beren esku hartzea:

→ **Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planek**

- Toki erakundeei dagokie horiek diseinatzea eta egikaritzea, eta problematika propio bat konpondu behar dute, zeinak lotura bat izan behar baitu Estrategia honetan aurreikusitako helburuekin, baita turismoaren arloko Estatu eta autonomia erkidegoko dokumentu estrategikoekin ere.

- Hiru urteko iraupena izango dute, 2023ko Lurralde Planean onetsitako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planek izan ezik, horiek 2026ko uztailaren 30ean amaituko baitira.
- Urte bakoitzeko Lurralde Planak, gutxienez, bere aurrekontuaren % 50 bideratuko du Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planen bidez.

→ Helmugan arteko Kohesiorako Jarduketak

- Izaera horizontaleko eta tokiz gaindiko esku hartzeak dira, autonomia erkidego bakoitzeko helmugetako jarduketak osatzen, harremanetan jartzen edo kohesionatzen laguntzen dutenak, eta autonomia erkidego bereko edo mugakideak diren autonomia erkidegoetako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planen arteko sinergiak sortzera edo indartzera bideratuta daudenak.
- Mugaz gaindiko jarduerak sartu ahal izango dituzte, Turismoko Estatuko Bulegoarekin alde zuzeneko negoziatuz.
- Autonomia erkidegoek zuzentzen dituzte, baina toki erakundeek horien egikaritzan parte har dezakete.
- Iraupena, gehienez ere, hiru urtekoa da.
- Lurralde Planak bere aurrekontuaren % 50 bideratuko die urtero Helmugan arteko Kohesiorako Jarduketari.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Inbertsiorako gutxieneko atalase hauek ezarri dira, helmugaren azpikategorien arabera.

- Hiri helmuga handia: 10.000.000 € (BEZik gabe)
- Nazioartetik datozenen eguzkia eta hondartzea helmuga: 5.000.000 € (BEZik gabe)
- Hiriko helmuga, Identitate turistikoa duen hiria, eta Eguzkia eta hondartza dituen, mistoa/urtarokoa: 2.000.000 € (BEZik gabe)
- Landa-eremuko kostaldea, Lurreko naturaguneak eta Identitate turistikoa duten landa-eremuak: 1.000.000 € (BEZik gabe)

Ez dago bateraezintasunik Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planen Programaren **edizio arruntaren eta ezohikoaren artean**. Hala eta guztiz ere, helmuga berberak ezingo du jaso, 2021-2026 aldian, 50 milioi eurotik gorako finantzaketa, estrategia horri lotutako programen eta finantzaketa-iturrien bitartez.

Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planek, gutxienez, **inbertsioaren ehuneko minimo bat** eduki dezaten eskatu zaie **Planaren helburuekin lotutako ardatzetako bakoitzean**:

- Trantsizio berde eta jasangarrian, % 15
- Energia-efizientziaren hobekuntzan, % 20
- Trantsizio digitalean, % 10
- Lehiakortasunean, % 10

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Jarduerak PRTRren helburuekin lotutako lehentasunezko 4 ardatzetan sailkatu dira:

- 1. ARDATZA. Trantsizio berdearen eta iraunkorraren eremuko jarduerak:
 - Helmuga eta azpiegiturak klima-aldaketara egokitzea
 - Ingurumena lehengoratzeta
 - Zerbitzu publikoetan ekonomia zirkularreko neurriak ezartzea
 - Naturaguneetako erabilera publikoaren kudeaketa
 - Zerbitzu ekosistemikoen balioa nabarmentzea

- 2. ARDATZA. Energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak:
- Klima-aldaketa arintzea
 - Deskarbonizazioa
 - Mugikortasun iraunkorra
 - Bizikleta-azpiegitura eta motorizatu gabeko ibilbideak egokitzea
- 3. ARDATZA. Trantsizio digitalaren arloko jarduerak:
- Helmugan turistari baliabideak eta zerbitzuak jakinaraztea eta eskuratzea
 - Turismoak helmugan sortzen duen inpaktua kudeatzea
 - Helmugan inteligentzia turistikoko plataformak eta sistemak garatzea
 - Helmugako turismo-enpresak eta -hornitzaileak
 - Gobernantza publikoa eta teknologiarako sarbidea
- 4. ARDATZA. Lehiakortasunaren arloko jarduerak:
- Egoiliarren eta turistaren komunikazioa eta sentsibilizazioa
 - Hiri-ingurunea hobetzeko jarduketak
 - Turismo-guneak birmoldatzea
 - Baliabide turistikoen inbentarioak
 - Iraunkortasun-ziurtagiriak
 - Turismo-eskaintza berria sortzea
 - Irisgarritasuna hobetzea
 - Turismo aktiboko ekipamenduak sortzea
 - Turismo-zerbitzuetarako ekipamenduen kudeaketa
 - Turismo-produktuen garapena
 - Turismorako tokiko produktuen balioa nabarmentzea
 - Segurtasun- eta higiene-programak eta -protokoloak
 - Helmuga turistikoa kudeatzen duen erakundearen funtzionamendua
 - Emaizak ebaluatzeko sistemak
 - Helmugaren kalitatea hobetzea

2022ko abenduaren 14ko konferentzia sektorialean, aho batez onetsi zen **“eguzkia eta hondartza dituen turismoa – turismo urdina”** aukeratzea 2023ko Plan Nazionalaren lehentasun gisa: kostaldeko eta barrualdeko turismo urdineko helmugak, eguzkia eta hondartza dituztenak eta barruko urak (ibaia, urtegiak eta abar) dituzten helmugak barne hartzen dituztenak.

Plan honen bidez, lehentasunez finantzatu dira honako helburu hauek dituzten jarduerak:

- a) Eguzkiarekin eta hondartzarekin lotutako turismo klasikoaren bilakaerak dimentsio holistikoago baterantz jo du, eta gero eta gehiago oinarritzen da esperientzian, beste produktu batzuekin (kultura, kirola, natura) lotuta egon ohi diren ezaugarriak barne hartzen ditu, edo ikuspegi klasikoan jasangarritasun dimentsio bat sartzen du; horrela, bada, produktu hibridoago eta malguago bat eratzen da, ingurunearekin eta hark eskaintzen duen aukera-aniztasunarekin hobeto konektatuta dagoena.
- b) Kostaldeko eta barnealdeko turismo urdinaren helmugak beren lurraldearekin lotzea, eskaintzak eta espazioak iragazkor bihurtuz, eta sortutako errentaren isuria barnealdeko hurbileko guneetara bultzatuz.
- c) Espazio degradatuak (naturalak eta hirikoak) birmoldatzea kostaldeko eta barnealdeko turismo urdineko helmuga izan daitezen, eskariaren ezaugarri berrietara egokituz.

- d) Mugikortasun eredia aldatzea, garraio garbien erabilera sustatzeko, naturaguneetarako sarbideak hobetzeko eta antolatzeko, edukierak kontrolatzeko eta ibilgailuen pilaketa mugatzeko. Irisgarritasunaren arloan estandarrik altuenak lortzen laguntzen duten jarduerak ere hautagarritzat joko dira.
- e) Kostaldeko eta barnealdeko turismo urdineko helmugetan klima-aldaketa arintzeko eta hari egokitzeko jarduerak.

Helmugen Jasangarritasunerako Plan batek edo Helmugako Kohesio Ekintza batek **eguzkia eta hondartza dituen turismoaren – turismo urdinaren** lehentasun nazionala betetzen duela aintzatetsi ahal izateko, aurrekontua honako jardueretara bideratu beharko du: helmuga eraldatzera, helmuga urdina, jasangarria, digitala eta, gertuko testuinguru sozioekonomikoari dagokionez, integratzailea izan dadin.

Horretarako, [Helmugetako Turismo Jasangarritasuna](#)ren Estrategiaren 06. eranskinean aipatzen diren jarduketetako batzuk edo antzekoak jaso beharko ditu.

Balorazio-irizpideak

→ Helmugen **bokazio turistikoa** (0 - 20 puntu)

- ▮ Abiapuntuko zailtasunak helmuga motaren arabera, faktore demografikoek edo birmoldatzeko beharrak eragindakoak.
- ▮ Helmugako tradizio turistikoa: turista kopuru handiak, eskaintza turistiko pribatua, erabilera publikoko ekipamenduak, marka, zigilua edo ziurtagiri turistikoa.
- ▮ Turismo-erabilerarako ondare-baliabideak: interes kulturalako ondasunak, guneak, ondarea, ibilbide eta bide kulturalak, etab.
- ▮ Turismo-erabilerarako eta nazioartean eta/edo estatuan aintzatesteko babestuta dauden baliabide naturalak.

→ Erkidegoko eta Estatuko estrategia turistikoekin **bat egitea eta horiekiko koherentzia izatea** (0-20 puntu)

- ▮ Esku hartzeak lotura izatea eskaintza turistikoaren urtarokotasuna eta kontzentrazioa murrizteko printzipioekin, eta lurraldearen kohesiorako prozesuekin.
- ▮ Helmugen kohesiorako plana edo jarduketa Turismoko Estatuko Bulegoak urtero politika nazional turistikoaren arloan ezarritako lehentasunarekin bat etortzea (2021ean Donejakue bidea izan zen).

→ Diagnostikoaren eta esku hartze bakoitzaren helburuen **kalitatea** (0-15 puntu)

- ▮ Ekosistema turistikoko eragileen parte-hartze maila.
- ▮ Problematikaren edo premia nagusien identifikazioa egokia eta zehatza izatea.
- ▮ Esku hartzeak efektu biderkatzailea sortzeko gaitasuna eta ahalmen eraldatzailea izatea.
- ▮ Komunikazio-tresnen diseinua eta egikaritzea, esku hartzeak egikaritzean zehar ikusgaitasuna izan dezan.

→ **Esku hartzearen koherentzia, zehaztasuna eta bideragarritasuna** (0-30 puntu)

- ▮ Esku hartze bakoitza osatzen duten jarduketan ikuspegiaren aberastasuna eta osagarritasuna.
- ▮ Eraldatzeko gaitasuna, zehaztutako helburuak lortu ahal izateko, eta definizioaren zehaztasuna.
- ▮ Bideragarritasun-maila: giza baliabideak eta baliabide teknikoak, programazio ekonomikoa, etab.

→ **Esku hartze bakoitzaren mugarriak eta helburuak betetzeari buruzko egutegiaren zehaztasuna** (0-15 puntu)

- ▮ Gutxieneko atalaseen betetze-maila.

Bestelako informazioa

Proposamenak [Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Egoitza Elektronikoaren](#) bidez bidali behar dira.

Online inprimakiaren bidez, honako hauei dagozkien eskabideak baino ezingo dira aurkeztu:

- Nire Autonomia Erkidegoko Lurralde Planerako PSTD
- PSTD Plan Nazionalerako - Eguzkia eta Hondartza/Turismo Urdina

Eskabide guztiek, besterik adierazi ezean, autonomia-erkidegoko lurralde-plana aukeratuko dute. Horrez gain, nahi duten erakundeek aukera izango dute beren proposamena Eguzki eta Hondartza/Turismo Urdina Plan Nazionalerako ere kontuan hartzeko.

Aldiz, Autonomia Erkidegoko Destinoaren Kohesiorako Jarduerak SETUREn Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (SIR kodea: EA0038896 - TURISMOAREN GARAPEN ETA IRAUNKORTASUNERAKO ZUZENDARIDETZA NAGUSIA).